



21 erakusketa
muestra


SUNCINE

Ingurumeneko
Zinemaren
Nazioarteko Jaialdia | Festival Internacional
de Cine del
Medio Ambiente

ALDABE

martxoaren 4tik 20ra
del 4 al 20 de marzo

19:00



SARRERA

SUNCINE, Ingurumeneko Zinemaren Nazioarteko Jaialdia, munduko erreferente bat da ingurumen-zineman. Honekin, 31 urte dira jada planetaren egoerari buruz sentsibilizatzen, kontzientziak pizten eta hezten, bai ingurumenaren ikuspegitik, bai ikuspegi sozioekonomiko eta kulturaletik ere.

Gasteizko 21. erakusketak zortzi dokumentalen aukeraketa bat dakarkigu; Aldabe Gizarte Etxean proiektatuko dira, martxoaren 4tik 20ra bitartean.

Hurbilketa errealista, konprometitu eta kritiko baten bidez, honako gai hauetara hurbilduko gaitu: Erdialdeko Amerikako oihan tropikaletako baso-soiltzearen aurka borrokatzeko ekintza komunitarioa; arnasteko arazoak dituzten pertsonetan kutsadura atmosferikoak duen eragina eta aire garbia arnasteko eskubidea; baliabide naturalen kudeaketa txarraren ondorioz Aral itsasoaren lehortzea; lehen sektorearen egoera genero-ikuspegitik; plastikoaren arazo larria itsasoetan; eta errefuxiatuen erresilientzia etorkizun ziurrago baterako migrazio-bidean.

Proiektatuko diren filmen artean, nabarmentzekoak dira "Patrullaje", dokumental onenaren Urrezko Eguzkia saria jaso duena, eta, "Respira mama", Espainiako ekoizpen onenaren Urrezko Eguzkia Ñ saria irabazi duena.

/"Artea erresistentzia modurik bikainena da " (Eduardo Galeano) /

INTRODUCCIÓN

SUNCINE, Festival Internacional de Cine del Medio Ambiente, es un referente mundial en el cine medioambiental. Con éste, ya son 31 años sensibilizando, concienciando y educando sobre la situación del planeta, tanto desde la perspectiva medioambiental como socioeconómica y cultural.

La 21 edición de la muestra de Vitoria-Gasteiz nos acerca una selección de ocho documentales que se proyectarán en el Centro Cívico Aldabe entre el 4 y el 20 de marzo.

A través de una aproximación realista, comprometida y crítica nos acercará a: la acción comunitaria para luchar contra la deforestación en las selvas tropicales de Centroamérica; la afección de la contaminación atmosférica a las personas con problemas respiratorios y el derecho a respirar aire limpio; la desecación del Mar de Aral a consecuencia de la mala gestión de los recursos naturales; la situación del sector primario desde la perspectiva de género; el grave problema del plástico en los mares; y la resiliencia de las personas refugiadas en su tránsito migratorio hacia un futuro con más certidumbre.

Entre las películas que se proyectarán, destacan "Patrullaje", galardonada con el Sol de Oro del festival al mejor documental, y "Respira mama", ganadora del Sol de Oro Ñ a la mejor producción española.

/“El arte es la forma más sublime de resistencia” (Eduardo Galeano)/

Egitaraua

Proiektzioak: 19:00
Aldabe Gizarte Etxea
Ekitaldi aretoa

martxoak 4, asteartea

Patrullaje

80 min

martxoak 6, osteguna

Semillas de sal y pimienta

80 min

martxoak 11, asteartea

Ben& bEartha
Memorias de un mar

40 min
45 min

martxoak 13, osteguna

Antártica
Plasticósfera

19 min
75 min

martxoak 18, asteartea

Respira mamá

77 min

martxoak 20, osteguna

This jungo life

77 min

Programa

Proyecciones: 19:00
Centro Cívico Aldabe
Salón de actos

martes, 4 marzo

Patrullaje

80 min

jueves, 6 marzo

Semillas de sal y pimienta

80 min

martes, 11 marzo

Ben& bEartha
Memorias de un mar

40 min
45 min

jueves, 13 marzo

Antártica
Plasticósfera

19 min
75 min

martes, 18 marzo

Respira mamá

77 min

jueves, 20 marzo

This jungo life

77 min

Premio "Sol de Oro" saria

Dokumental honek Erdialdeko Amerikako baso tropikalen krisiaren aurrean misio heroiko bat erakusten du. Basoak mozten dituzten legez kanpoko abeltzainei erantzuteko, basozain indigenek eta afro-ondorengoek, kontserbatzaile estatubatuar batekin eta kazetari talde batekin bat egiten dute haragiaren industriaren alde iluna erakusteko.



Este documental muestra una misión heroica ante la crisis de los bosques tropicales en Centroamérica. En respuesta a los ganaderos ilegales que talan bosques, guardabosques indígenas y afrodescendientes se unen a un conservacionista estadounidense y a un equipo de periodistas para mostrar el lado oscuro de la industria de la carne.

Semillas de sal y pimienta

Alicia Van Assche
ESPAINA / ESPAÑA

martxoaren 6a, osteguna
6 de marzo, jueves

80 min



PROIEKZIOA ETA GERO

solasaldi irekia Neus Monllorekin, Amaterrako nekazaritza eta gizarte aholkularia

Ahabin landaketei, oilo zoriontsuen haztegiei eta elkargune jasangarrii buruzko esperientziak partekatzen dituzten bitartean, bost emakume elkartu dira gourmet proiektu bakar bat sortzeko. Beren istorioen bidez, lotura sakonak eraikitzen dituzte haien artean, eta elkarlanerako eta iraunkortasunerako mezu baten bidez inspiratzen gaituzte.



Cinco mujeres se unen para crear un proyecto gourmet único, mientras comparten sus experiencias sobre plantaciones de arándanos, granjas de gallinas felices y centros de encuentro sostenibles. A través de sus historias, construyen vínculos profundos y nos inspiran con un mensaje de colaboración y sostenibilidad.

TRAS LA PROYECCIÓN

Coloquio abierto con Neus Monllor, consultora agrosocial en Amateria

Ben & bEartha dokumentalean, Ben Bushell konpostazaile sutsua dugu, munduko edozein komunitatetan eta eskala handian konposta egiteko makina bat garatzen ari den lantaldearen burua. Benen bidaiaren bidez, bEartha aurkituko dugu, konpostatze automatikoa egiteko makina bat, eskala txikiko konpostatze komertziala irauli dezakeena.



En Ben & bEartha seguimos al apasionado compostador Ben Bushell que lidera un equipo que trabaja para desarrollar una máquina que permite el compostaje a gran escala en cualquier comunidad del mundo. A través del viaje de Ben, descubrimos a bEartha, una máquina de compostaje automática que puede revolucionar el compostaje comercial a pequeña escala.

Karbonoaren zikloan espezializatutako zientzialari talde bat Kazakhstane-ra joan da Aral itsasoa ikastera. Munduko laugarren aintzirarik handiena zen. Orain basamortu bat da, ingurumen-kudeaketa txarraren ondorioz. Ikerketaren helburua Aral itsasoa lehortearen ondorioz atmosferara askatu den karbonoa kuantifikatzea izango da. Espedizioan, itsasoaren atzerakadaren lekuko izango dira, eta aldaketa horren ondorioz kalte-tutako familia bat ezagutuko dute. Bidaia, aurkikuntza zientifiko, esperientzia pertsonalez eta erronkaz betea, antzinako itsasoaren bihotzera eramango ditu.



Un equipo de científicos especializados en el ciclo del carbono viaja a Kazajistán para estudiar el Mar de Aral. Era el cuarto lago más grande del mundo. Ahora es un desierto debido a la mala gestión ambiental. Su objetivo es cuantificar la liberación de carbono en la atmósfera debido a la desecación del mar de Aral. Durante la expedición, serán testigos del retroceso del mar y conocerán a una familia afectada por este cambio. El viaje, lleno de descubrimientos científicos, experiencias personales y desafíos, los llevará al corazón del antiguo mar.

Oso zaila da bizitza aldatzen duten esperientziak deskribatzea. Gold Harbour hondartzan goizeko 5: 30etan egotea, bizitza-bolumen izugarria ikustea eta planetaren hauskortasun erabatekoaz ohartzea, gizakiak areagotua... une paregabea izan zen Sue Quelchen bizitzan.



Es muy difícil describir experiencias que cambian la vida. Estar en la playa de Gold Harbour a las 5:30 a.m., presenciar el inmenso volumen de vida y darse cuenta de la absoluta fragilidad del planeta, exacerbada por el hombre... fue un momento único en la vida de Sue Quelch.

martxoaren 13a, asteartea

13 de marzo, martes

Dokumental honek Latinoamerikako zientzialari eta ingurumen-adituak jarraitzen ditu, munduko bigarren koralezko arrezife handiengan zehar egindako espedizio ausart batean. Helburua, mikroplastikoen kutsadurak itsas-bizitzan, turismoan, arrantzan eta giza osasunean duen eragina ikertzea eta dokumentatzea da. Ozeanoaren sakonera arakatu ahala, arazoaren larritasuna eta gizartean eta politikan dituen ondorioak jabetzen dira. Filmak kontzientzia sortzeko borroka nabarmentzen du, baita ikerketak eta aktibismoak ingurumenaren kontserbazioan duten papera ere.



El documental sigue a ambientalistas y científicos latinoamericanos en una audaz expedición por el segundo arrecife de coral más grande del mundo. Su misión es investigar y documentar la grave contaminación por plásticos y microplásticos que afecta la vida marina, el turismo, la pesca y la salud humana. A medida que exploran las profundidades del océano, descubren la magnitud del problema y sus efectos en la sociedad y la política. La película destaca la lucha para crear conciencia y, también, el papel de la investigación y el activismo en la conservación ambiental.

Respira Mamá

Meri Collazos Solà
ESPAINA / ESPAÑA

martxoaren 18a, osteguna

77 min

18 de marzo, jueves

JBA gaztelaniaz / VOS castellano

Premio “Sol de Oro Ñ” saria

Dokumental honek Meriren borroka erakusten du, alabak arnastea zailtzen dion afekzio genetikoa duela jakiten duenean. Une horretatik aurrera, bere bizitza funtsezko eskubide bat bermatzeko borroka bihurtzen da: aire garbia eskuragarri izatea. Filmak, osasun pertsonalari buruz hitz egiteaz gain, kutsadura atmosferikoari eta horrek familia kalteberei nola eragiten dien ere salatzen du. Meriren istorioak giza osasunaren eta ingurumenaren babesaren arteko lotura azpimarratzen du.



Este documental muestra la lucha de Meri cuando descubre que su hija tiene una afección genética que le dificulta respirar. A partir de ese momento, su vida se transforma en una batalla para garantizar un derecho esencial: el acceso a un aire limpio. La película no solo habla de la salud personal, sino que también es una denuncia sobre la contaminación atmosférica y cómo ésta afecta a las familias vulnerables. La historia de Meri enfatiza en la conexión entre la salud humana y la protección del medio ambiente.

This jungo life

David Fedele & Abubakr Ali

MAROKO / MARRUECOS

martxoaren 20a, osteguna

77 min

20 de marzo, jueves

JBA gaztelaniaz / VOS castellano

Dokumental intimista honek Libiako indarkeriatik ihes egin ondoren Marokoko kaleetan bizirauteko borrokan ari diren Sudango gazte errefuxiatuen bizitzari begirada bat eskaintzen die. Ikuspegi humanitario batekin, protagonisten espiritu erresilientea eta ezbeharren erdian ziurtasunezko etorkizuna aurkitzeko duten ausardia nabarmentzen ditu. Errefuxiatuek bizi dituzten giza egoeren eta borroken erakusgarri da.



Un documental intimista que ofrece una mirada a la vida de jóvenes refugiados sudaneses que luchan por sobrevivir en las calles de Marruecos después de huir de la violencia en Libia. Con un enfoque humanitario, captura el espíritu resiliente de los protagonistas y su determinación para encontrar un futuro de certidumbre en medio de las adversidades. Una muestra de la condición humana y de las luchas que enfrentan las personas refugiadas.

**SUNCINE Ingurumeneko
Zinemaren Nazioarteko
Jaialdiaren
21. erakusketa**

**21 Muestra SUNCINE
Festival Internacional
de Cine del
Medio Ambiente**